


**TRATU ONEN HERRIA- XABIER ETA ESTHER**

# Hernaniko Gaztelekua

## Zein da Hernaniko Gaztelekuaren ibilbidea?

Hernaniko Gaztelekua proiektu pilotu bezala 2000. urtean jarri zen martxan. 2002. urtetik gaur egun arte, Urburu Aisialdia izan da Gaztelekua kudeatzeaz arduratu dena, eta aisialdi hezitzaile bat sustatzea du helburu. Elkar kudeatutako zentro bat da, non, proiektua indartzea eta egonkortzea lortu den. Aisialdi proiektu bat izateaz gain, proiektu hezitzaile bat izatea eta gazteengana iristea da asmoa. Helburu hezitzaileak egokiak izateko, Udala Gaztematika sarean sartzeko lehen urratsak eman ditu, ildo beretik lanean jarraituz.

## Eta orduan zein da Gaztelekuan egiten duzuen lana?

Gaztelekua Hernaniko Udalak eta zehazki Gazteria arloak eskaintzen duen doako zerbitzua da. Zerbitzu hau 12-17 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Gaztelekuan gazteen beharrak identifikatu eta entzun, gure esperientzia partekatu eta gazteei protagonismoa ematen diegu. Gaztelekua aisialdi zerbitzu bat da besteak beste. Horretarako Gaztelekua bezala ezagutzen den lokalaz gain, kalea ere, ekintzak burutzeko erabiltzen da. Arreta zuzenean, gazteei gure hezitzaile lanaren ikuspuntua azaltzen saiatzen gara, beti ere konfiantza eta gertutasun puntu bat eskainiz. Izan ere, ez gara gazte hauen ez irakasle eta ez guraso eta guregan konfiantza osoa edukitzeko aukera ematen diegu.

## Zergatik animatu zineten "Tratu Onen Mapa" prozesuan parte hartzera?

Arremanitz Kooperatibarekin landu dugun gaia izan da, eta gure egunerokoan, hezitzaileak pertsonalki, lan talde bezala eta hezitzaileak eta gazteen artean zaindu behar

den ezinbesteko gaia dela iruditzen zaigulako. Gaur egungo gizartean norberak bere buruan bakarrik pentsatu eta lehiakortasuna bultzatzen dela ematen du baina zaintzen gaia ez dugu ahaztu behar. Denok daukagulako zainduak izateko eta zaintzeko beharra. Interdependienteak garela izaki sozialak garen heinean.

## Zuen ustez, eta Tratu Onei dagokionez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Zaintza lanei balioa ematea iruditzen zaigu garrantzitsuena. Denak baitauzkagu mota ezberdinetako beharrak, eta gaur egun gazteenak asetzeari berezko garrantzia eman nahi diogu ideia honen transmisioa egiteko. Hauek izango baitira etorkizuneko heldua.

## Eta herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun gazteen artean dauden praktika onak?

Hernanik herri handi baten ezaugarriak baditu ere herri txiki baten izaera dauka. Bere alderdi on eta txarrekin. Batzuetan denok ezagutzen garela ematen badu ere, askotan koadrilaka ibiltzen gara eta batzuetan adin tarteka bereizten gara. Horregatik txalotzekoa da, azken urtetan Gazte Olinpiadek jokatu duten papeira herriko gazteen arteko harremanak estutzeko.

## Zer nolako aisialdi eredu irudikatzen duzue denontzako ona izango den

## Tratu Onen herri amestu hortan?

Parte hartzailea, parekidea, inklusiboa eta euskalduna. Pertsona guztiak desberdinak garela ulertzen duena eta aniztasuna balioan jartzen duena. Zaintza lanak erdigunean izango dituen. ||



Gaztelekuko hezitzaile dira Xabier (argazkian), Eunate, Esther (argazkian) eta Nagore.

## EROTIKAN PLAX - IÑAKI ERRAZKIN ARTOLA

### "Petxuga baino izterra nahiago"

Artola Harategian egin dugu zita Iñakirekin, duela 31 urte harakin moduan hasi zen leku berean. Bizitzari ondo doakion saltsa zein den galdetuz gero, beste pertsonekin kontaktuan egotea dela esango digu.

**Izena:**  
Iñaki Errazkin Artola

**Jaio:**  
1971-05-27

**Herria:**  
Hernani

**Bizitokia:**  
Donostia

**Lanbidea:**  
Harakina



Iñaki, Andre kaleko Artola harategian.

## Zein da elikagaia eta kutixiaren arteko desberdintasun nagusia?

Kutixia askoz elaboratuagoa da, ikusten ez den prestaketa handia du.

## Aurrez-prestatuta al gaude bikotean elkarbizitzeko?

Ez. Gurasoen etxean zainduak izatera ohituta gaude eta bikotearekin joatean, konfort ingurutik ateratzea kostatzen dela esango nuke.

## Maitasun kontuetan, haragi guztia parrillan ala pixkanaka?

Pixkanaka.

## Gizarte honek zer behar du lontxa fin finetan dastatzen joatea?

Errespetua eta tolerantzia.

## Zer moztuko zenuke labanarekin?

Hipokresia.

## Izterra ala petxuga?

Izterra.

## Gustuko momenturen bat zure lanean?

Jendearekin nagoenean.

## PLAZERREN PUTZUA

Zer egiten duzu plazer hutsagatik?  
Bidaiatu.

## Postre goxo bat?

Arroz esnea.

## Edabe inspiragarri bat?

Ardo beltza.

## Oilo ipurdia jartzen dizun abesti bat?

Mikel Laboaren 'Gure bazterrak'.

## Plan bete-bete bat?

Motorrean bidaiatzea.

## Aroma bat...

Larrosarena.

## Bazter erotiko bat...

Mendian, ibiltzen aritu ondoren...

## Kamara izoztuta geratu zaizun desio bat?

Osasun kontuei buruz gehiago ikastea.

## Arnasteko pelikula bat...

"Los puentes de Madison".

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterreri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: maiatzak 11n (15:30-18:30) eta maiatzak 27an (10:00-13:00). Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), [www.hernani.eus/sexu](http://www.hernani.eus/sexu) edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)

**TIPI TAPA Bagoaz Bizimodu Jasangarrietarantz**  
Hacia Vidas SOSTENIBLES

**Dokumentala eta solasaldia** Eguna: ekainak 7, asteazkena  
Ordua: 19:00etan  
Tokia: Plaza Feminista. Hernani

hermaniko  
b. perozito  
PLAX! KAN  
www.plaxhernani.eus  
berdintasun kontseilua  
Hernaniko Udala